



imajinatu

# imajinatu!!!



## Design for Change metodologiaren bigarren urratsean gaude.

Helburua da ahalik eta ideia gehien proposatzea (eta zenbat eta eroagoak izan, hobe) aukeratutako egoera konpontzeko.

Taldeari interesgarrien suertatzen zaion konponbidearekin prototipo bat egiten da, frogatu egiten da eta ekintza-plan bat prestatzen da. Garrantzitsuena da benetako aldaketa bati ekingo zaiola jabetzea. Beharbada hasierako ideia lurreratu eta "egingarri" bihurtu beharko da: beren proiektua inoren beharra izan gabe aurrera eramateko aukera ona da. Zein da funtsezko osagaia? SORMENA lantzea.

Kanpainako jarduerak sortzen dituen taldetik, gela bakoitzeko bi ordezkari aukeratzea proposatzen dizugu, eskola-orduetan batzar bat egiteko. Etapaka, zikloka edo batzar bakar moduan antola daiteke, ikastetxean dagoen ikasle kopuruaren arabera. Proposamena da zerbait ikusgarria egitea, eskolen erritmoa nolabait "apurtuko" duena eta sare sozialetan edo ikastetxearen web orrian ezagutzera eman dezakeguna.

Azaldu dugun moduan, helburua da SENTITU fasean aitzortu ditugun egoeretako bat eraldatzeko balio dezaketen ideia asko botatzea. Hauek dira fase honetan gauzatzeko proposatzen diren ekintza metodologikoak:

- Ideia-jasa
- Arkatzak erdian

Ikasketa kooperatiboko egitura simple bat da. Ikasleak launaka elkartzen dira eta bakoitzak orri bat eta arkatz bat (edo boligrafoa) hartzen du. Banaka, SENTITU fasean ikusi ditugun egoerei irtenbideren bat emango dien ideia bat botatzen dute. Momentu horretan, arkatzak erdian daude. Ideia eztabaidatu ondoren, eta ekintza ona edo onargarria badirudi, denek idazten dute orrian. Helburua da taldekide guztien artean elkarrizketa, elkarrekintza eta parte-hartze orekatua lortzea.

### **Bikoteak eztabaidan**

Irakasleak SENTITU fasean ikusitako egoeretako bat proposatzen du eta bikoteko kideek konponbidea bilatu beharko diote. Irakasleak dioenean, eta adostutako denboran (gaiaren zailtasunaren arabera), bikoteek eztabaidatu egiten dute eta batak besteari konponbidea azaltzen dio taldeari.

Egitura honek aldebereko elkarrekintza, parte-hartze orekatua eta elkarrekiko mendekotasun positiboa bilatzen du. Batzarrean proposatutako ekintzak bildu ondoren, ordezkariak geletara itzultzten dira.